

UDAL LIBURUTEGIA ERABILTZEKO ARAUAK

Anoetako Liburutegia herritar guztientzat irekita dago eta, beraz, komunitate osoari eskaintzen dio irakurketa publikoko doako zerbitzua. Zerbitzu publikoa den eanean, bere arauak betetzea guztion betebeharra da.

Araudi honen osaketa eta jarraipena Anoetako Udaleko Kultura departamentuaren eskumena da, eta liburuzainak du betearazteko ardura.

Araudi hau lege honetan oinarrituz egin da: 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa. Hortaz, LIBURUTEGIA ERABILTEZAK ARAUDI HAU ONARTZEA DAKAR:

Erabiltzaileen betebeharrak orokorrak:

- a) Liburutegiko gainerako erabiltzaileen eskubideak errespetatzea, eta, ildo horretatik, behar den ordena, errespetua eta gizalegea gordetzea.
- b) **Dokumentuak, instalazioak eta** liburutegiko gainerako **tresnak zuzen erabiltzea eta zaintzea.**
- c) Maileguan hartutako liburu eta materialak hartu diren **egoera berean itzultzea.**
- d) Liburuzainak egindako **oharrak eta aginduak betetzea.**
- e) Hala eskatzen duenean, **erabiltzaile-izaera egiaztatzea.** Liburutegiko Erabiltzaile Txartela pertsonala eta besterenezina izango da. Ezinbestekoa izango da mailegu zerbitzuaz baliatzeko.

Anoetako liburutegiko instalakuntzen funtzionamendu arauak:

- f) Besteei zor diegun begiruneagatik **isiltasuna** gorde behar da. **Patxadaz ibili** beharko da, zaratarik atera gabe eta korrikarik egin gabe. Sakelako telefonoen, ordenagailu eramangarrien eta beste dispositibo elektronikoen soinuak deskonektatu behar dira.
- g) **8 urtetik beherako haurrak** beti heldu batek lagunduta egongo dira liburutegian. Adin horretatik aurrera, bakarrik ere egon daitezke, baina erantzukizuna guraso edo tutoreena izango da beti.
- h) Liburutegiko **ordenagailuak** informazioa eskuratzeko, korreoa kontsultatzeko eta eskolako lanak egiteko soilik erabiliko dira. Erabiltzeko denbora liburuzainak zehaztuko du, eskatzaile kopuruaren arabera.
- i) Ez dago instalazioetan **jaterik ez eta edaterik ere.**
- j) **Bizikletak** eraikinetik kanpo utziko dira.
- k) **Patineteak, baloiak edo antzekoak** liburutegiko sarreran utziko dira.
- l) **Haur kotxeak** pasilloan utziko dira (2 urte bitarteko haurren kotxeak onartuko dira soilik).

Arau hauek betetzen ez badira 11/2007 Legearen arabera zigor daitezke. Gertaeraren larritasunaren arabera, ohartarazpenetik hasi eta zentroan sartzea debekatzeraz edo isunak jartzera irits daitezke zigorrak.